

2018KO ZEMENDIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2018ko zemendiaren 29an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV).
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenkaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2018KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2018ko urriaren 25ean egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

306/2018.- Udal eraikinen garbitasunaren zerbitzua kontratatzeko espedienteari ekitea.

307/2018.- Garbialdi S.A. enpresagaz sinatutako kontratua luzatzea.

308/2018.- Garbibakio ondasunen komunitateagaz sinatutako kontratua luzatzea.

309/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

310/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

311/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

312/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

313/2018.- Fidantza itzultzeko ebazpena.

314/2018.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

315/2018.- 2018ko Oktober Jaia ospatzeko baimena.

316/2018.- Hondakin metalikoak saltzeko ebazpena.

317/2018.- Bizitza bateko etxea egiteko lizentzia emotea.

318/2018.- Kultur Etxeko gela bat erabiltzeko baimena.

319/2018.- Ibarretako areto bat erabiltzeko baimena.

320/2018.- Ibarretako gela bat erabiltzeko baimena.

321/2018.- Komunitate bateri obra lizentzia emotea.

322/2018.- Animalia arriskutsuak izateko lizentzia.

323/2018.- Kontratazino mahaiak VASAMA enpresaren alde egindako proposamena onartzea.

324/2018.- Skate pista erabiltzeko baimena.

325/2018.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

326/2018.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

- 327/2018.- Kredituen aldarazpena onartzea.
- 328/2018.- Kredituen aldarazpena onartzea.
- 329/2018.- Obligazioen ordainketa onartzea.
- 330/2018.- Kontratazino Mahaiak BERMEOSOLO, S.A.U. enpresearen alde egindako proposamena onartzea.
- 331/2018.-Kontratazino Mahaiak *Ula Iruretagoiena + Eneko del Amo + Iñigo Maguregui + Saioa Zuazubizkar + Igor Ahedo + Claudia Montes + Iurdana Txintxurreta + José Ignacio Riesco* taldearen alde egindako proposamena onartzea.
- 332/2018.- Kontratazino Mahaiak kaleak garbitzeko makinaren lizitazioa hutsik ixteko egindako proposamena onartzea.
- 333/2018.- Kaleak garbitzeko makina errentan hartzeko esleipen prozedurari hasikerea emotea.
- 334/2018.-Enpresa bateri zerbitzuen kontratu txikia esleitzeko ebazpena.
- 335/2018.- Bakioko Udaleko jabetzaren ondare lursailak diren "Matxerreka" eta "Iturralde" lursailen baso aprobetxamenduaren kontratua esleitzeko ebazpena.
- 336/2018.- Surf txapelketa antolatzeko baimena.
- 337/2018.- Obren burutzapen proiektua udaletxean aurkezteko epea hiru hilabetez luzatzea.
- 338/2018.- Bakioko Udaleko hirigintza antolamenduko plangintza orokorra izapidetu eta idazteko zerbitzuen kontratua esleitzeko ebazpena.
- 339/2018.- Urbanizazio obra osagarriak ontzat emoteko ebazpena.
- 340/2018.- Kultur Etxeko bideo gela erabilteko baimena.
- 341/2018.- Enpresa baten fakturea onartzea.
- 342/2018.- Komunitade bateri kontserbazino lanak egiteko agintzea.
- 343/2018.- Zerbitzuen kontratu txikia esleitzeko ebazpena.
- 344/2018.- Bakioko Udalaren eta behargin baten arteko hitzarmena onartzeko ebazpena.

345/2018.- Lapikokoen lehiaketa egiteko baimena.

346/2018.- Udal erroldan higiezin bat inskribatzeko ebazpena.

347/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

348/2018.- Obligazinoen ordainketa onartzea.

349/2018.- Herri jabaria mahai eta aulkiekin okupatzeagatiko tasaren 2018ko zerga errolda onestea.

Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

316/2018 dekretua:

Bakioko Udalaren jaubetzako hondakin metalikoak —batez be, uri-altzariak eta zaborrontziak kendu behar dira, eta, horretarako, eurok saltzea aurreikusi da. Izan be, hondakinok leku asko okupatzeaz gain, emoten daben uri irudia itsusia da.

Hori dala eta, udal aparejadorearen 2018ko urriaren 22ko txostena aztertu da, eta bertan salgai imini diran materialak zeintzuk diran eta euron kopuruak zehazten dira, kopuruon zehaztapena gitxi gorabeherakoa izanik.

Txostenean azaltzen da be, hainbat enpresari kontsultatu ostean, eskaintza onena Hierros Kortederra S.L. enpreseak aurkeztu dauala, hauxe, hain zuzen: *Burdina-180euro toneladako eta Inox- 750 euro toneladako.*

323/2018 dekretua:

Kontuan izanik, Kontratazino Mahaiak, 2018ko urriaren 26an, lizitatzailerak, hau da, VASAMA FORESTAL, S.L. enpreseak, aurkeztutako gutun-azala zabaldu eta bertan ageri zan dokumentazinoa aztertu ebala, beti be Administrazino Klausula Zehatzen eta Baldintza Teknikoen Orrien arabera, eta, ondorioz enpresa horren aldeko erabagi-proposamena egin ebala.


Horrenbestez, espedientean ageri dan dokumentazinoa aztertu ostean, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko zemendiaren 8ko 9/2017 Legearen 159.1 artikulua eta lege horren bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, Alkatetza honek efrabagi dau Kontratazino Mahaiaren 2018ko urriaren 26ko erabagi-proposamena onartzea.

327/2018 dekretua: 14. kredituen aldarazpena onartzea, kreditu gehigarriaren modalidadean.

Kreditu gehigarria:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
133.227.99.03	O.T.A.	117.243,54 €	11.863,16 €	129.106,70 €
	GUZTIRA	117.243,54 €	11.863,16 €	129.106,70 €

Kreditu gehigarriaren finantzazinoa:



328/2018 dekretua: 15. kredituen aldarazpena onartzea, kreditu gehigarriaren modalidadean.

Kreditu gehigarria:

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
171.601.00.02	Mobiliario	20.000,00 €	18.466,65 €	38.466,65 €
459.601.00.06	Ibarratorre kalearen urbanizazioa	223.867,78 €	11.924,55 €	235.792,33 €
459.601.00.07	Buzoiak	0,00 €	17.915,01 €	17.915,01 €
	GUZTIRA	243.867,78 €	48.306,21 €	292.173,99 €

Kreditu gehigarriaren finantzazinoa:

Partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	
870.01	Kreditu gehigarriak finantzatzeko ezarpena (2017ko ekitaldiko diruzaintzako gerakina)	48.306,21 €
	GUZTIRA	48.306,21 €

330/2018 dekretua:

Alkatetzaren urriaren 1eko 284/2018 zk. dekretuaren bidez, Errenteriako bidearen alboan dagoan ezponda egonkortzeko obren kontratazioari buruzko espedientea

onartzea erabagi zan, kontratua eraenduko dauan Administrazio Klausula Zehatzen Orria barruan dala, adjudikazioa prozedura urriko ireki sinplifikatuaren bitartez izapidetzea erabagiz. Era berean, adjudikazioak ekarriko dauan gastua eta obren proiektua be onartu ziran. Lizitazio aurrekontua: 66.312,75 € BEZ barik + 13.925,68 € BEZ barruan dala; guztira 80.238,43 €

Kontuan izanik, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 31n, enpresa lizitatuak bakotzak aurkeztutako gutun-azala zabaldu eta bertan ageri zan dokumentazioa aztertu eta proposamenei, hastapen sistemaren bidez, puntuazioa emon ostean — Administrazio Klausula Zehatzen Orriaren arabera—; ondorioz BERMEOSOLO, S.A.U. enpresearen aldeko erabagi-proposamena egin ebala.

Alkatetza honek honako erabagia dau, Kontratazio Mahaiaren 2018ko urriaren 31ko erabagi-proposamena onartzea, BERMEOSOLO, S.A.U. enpresearen alde, hain zuzen.

331/2018 dekretua:

Bakioko Udaltzako 2018ko bagilaren 28ko erabagiaren bidez, *Bakioko uri antolamenduari buruzko plangintza orokorra izapidetu eta idazteko* zerbitzua kontratatzeke espediente onestea erabagi eban, kontratua eraenduko daben administrazio baldintzen eta preskripzio tekniko berezien agiriak barruan dirala, adjudikazioa prozedura irekiaren bitartez izapidetzea erabagiz. Era berean, adjudikazioak ekarriko dauan gastua be onartu zan.

Kontuan izanik, Kontratazio Mahaiak, 2018ko urriaren 31n, “A” gutun-azaletan (balio-judizio baten mende dauden irizpideak) dagoen dokumentazioari emandako puntuazioa eta “B” gutun-azaletan dagoen dokumentazioari buruzko puntuazioa batu eta, ondorioz, lizitatuak honen aldeko proposamena egin ebala: *Ula Iruretagoiena + Eneko del Amo + Iñigo Maguregui + Saioa Zuazubizkar + Igor Ahedo + Claudia Montes + Iurdana Txintxurreta + José Ignacio Riesco.*

3.- UDAL KIROLDEGIAREN ERABILERA DALA ETA, “CLUB KIROLETA”, “UTE POLIDEPORTIVO BAKIO” ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Zinegotzi guztiek badakie Kiroleta Club alkarteak, udal kiroldegiko kontzesinodunak eta Bakioko Udalak sinatzeko proposatzen dan hitzarmenaren edukia zein dan. Hitzarmenak hiru atal honeek arautzen dauz:

a) Emtesport-ek Kiroletan jarduerak egiteko eta eremua dinamizatzeko aukerea.

b) Kiroleta eta Kiroldegiko bazkideek instalazioak erabilteko akordioa.

c) Emtesport-eko beharginek eta bestelako erabiltzaileek eremua erabiltzea.

Hori horrela izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

1.- Kiroleta Club alkarteak, udal kiroldegiko kontzesinodunak eta Bakioko Udalak sinatu beharreko lankidetzak hitzarmena onartzea. Eta hitzarmena akta honeri erantsia.

2.- Alkate andreak hitzarmena sinatzea, udalaren legezko ordezkaria dan aldetik, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1085 legearen 21.1.b) artikulua araberak

4.- BIZKAIKOA (FORU-ERAKUNDE PUBLIKO ENPRESARIAL) ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ALDARAZPENA ONARTU, BAKIOKO TXAKOLINGUNEAREN ZENTROAREN KUDEAKETAREN INTEGRALA EGITEKO.

BizkaiKOak eta Bakioko Udalak 2014.07.1ean hitzarmena sinatu eben Bakioko Txakolingunean bisitariei zuzendutako jarduerak eta artapena antolatzeke zerbitzuen kudeaketa partekatua arrazionalizatzeko helburuagaz, beti be hitzarmen horren lehenengo ezarpenean azaltzen dan lez.

Hitzarmenean horren lizitazioa BizkaiKOak egitea azaltzen da, bera dalako kontratuari ekarpen ekonomiko handiena egiten deitsona.

Oraingoari jagokonez, hauxe proposatzen da:

Langile bat gehiago sartu gura da Txakolingunean. Honen kostua 11.410€koa da. Behargin barri honen lana Community Manager lanak egitea da. Lan honek txakolingunean ez eze turismo bulegoan be eragina daukanez gastuaren zati bat Bakioko Udalak ordaintzea proposatzen da. Gastu hori, 4.626€koa da.

Zinegotziek horren ganean jakitun diran ezkerok, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

1.- Bizkaikoak eta Bakioko Udalak 2014ko garagarrilaren 1ean sinatutako hitzarmena aldarazotea, baina, bakarrik Bakioko Udalaren ekarpen ekonomiko kontratuari 4.626€koa izango dala zehazteke.

2.- Alkate andreak hitzarmenaren aldarazpene sinatzea, udalaren legezko ordezkaria dan aldetik, beti be toki araubidearen oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1085 legearen 21.1.b) artikulua araberak

5.- UDAL PERTSONALAREN ORDAINSARIAK IGOTEA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ; HORRELA BADA, EUDEL-EK 2018KO ORDAINSARIEN IGOEREN GOMENDIOAGAZ BAT ETORRIZ.

Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren garagarrilaren 3ko 6/2018 Legearen 18.Bi artikulua aukerea ematen dau neurriak hartu, eta administrazio publikoko beharginen ordainsariak igotzeko.

Horren harira, EUDELek, hedatutako *UDALHITZ Negoziazino kolektiboa-2018ko ordainsarien igoeren gomendioaren* zirkularra kontua hartu da. Izan be, hau da gomendia:

Aipatutako 18.Bi artikularen lehen paragrafoari dagokionez, 2018-01-01etik aurrera, langileen ordainsariak legeak baimentzen duen gehiena igotzea, hau da, %1,5, 2017ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Bestetik, 18.Bi artikularen bigarren eta hirugarren paragrafoei dagokionez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan dezan, administrazio publikoko enplegatuei ordaintzeko, igoera onesten duen Ministroen Kontseiluak -halakorik bada- akordioa jakinarazi bezain azkar.

Aurreko 18.Bi artikularen laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017ko ekitaldiko aurrekontuan superabita duten EAEko udalerriei gomendatzen diegu soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria baimen dezaten, dituzten finantza- eta aurrekontu-aukeren arabera. Zenbateko hori langileen artean banatuko da, 18.2 artikularen laugarren paragrafoan aipatutako edo aplikatu ahal diren bestelako lege-formulen bidez. 2017ko ekitaldian aurrekontuko superabitik izan ez duten udaletan, EUDELek gomendatzen du soldata-masaren %0,2ko igoera egitea.

Kontuan izanik, 2017ko ekitaldian udal aurrekontuan superabita izan dala

Zinegotziek gai honen ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), EUDELen *UDALHITZ Negoziazino kolektiboa-2018ko ordainsarien igoeren gomendia aintzat hartuz, Bakioko Udaleko pertsonalari jagokonez, erabagi hau hartzea:*

2018-01-01etik aurrera, udal beharginen ordainsariak %1,5 igotzea, 2017ko abenduaren 31n indarrean egoanaz alderatuta, konparatutako bi denboraldien homogeneatasunari jagokonez, hala behargini begira, nola antzinasunari begira.

Bestetik, Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren garagarrilaren 3ko 6/2018 Legearen 18.Bi artikularen bigarren eta hirugarren paragrafoei jagokonez, %0,25eko soldata-igoera gehigarria jartzea, 2018-07-01etik aurrera eragina izan

daian, beti be Ministroen Kontseiluak 2018ko garagarrilaren 13an hartutako erabagiagaz bat etorri.

Aurreko 18.Bi artikuluauren laugarren paragrafoari dagokionez, udal-autonomiari kalterik egin gabe, 2017 ekitaldiko aurrekontuan superabita egon dan ezker, soldata-masaren %0,3ko igoera gehigarria onartzea, eta Alkateari ahalmena emotea portzentaje hori Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorretan ageri dan erara banatzeko.

6.- HIRUGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 2018KO 32. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.

Seko 15/2010 Legearen 4. artikuluauren arabera, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2018ko zemendiaren 14an txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta 2018ko hirugarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETA	
<i>Ordaindu diranak legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe barruan</i>
441.973,37€	312 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diranak legezko epeetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diranak legezko epe kanpora</i>
47.285,96 €	17 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epeetik kanpo</i>
335.008,80 €	29.136,24 €

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2018ko hirugarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea haxe izan da: 2,29 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

7.- BAKIOKO HONDARTZA HAINBAT EKIPAMENDURAKO ERABILTEKO, ITSAS ETA LEHARRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO KONTZESINOAREN LUZAPENA ESKATU.

Bakioko Alkate andreak, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari 2016ko bagilaren 23an aurkeztutako idatziaren bidez, eskabide hau egin eutson: *Bakioko hondartza hainbat ekipamendurako erabilteko, itsas eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko kontzesinoaren luzapena.*

Mugarte horren 2018.11.07ko idatzia jaso da (G/ERREF: CNC02/01/48/0009-CNC13/01 BI-16/58), adierazoz kontzesinoaren luzapenaren eskabidea tramitatzen hasi dala, eta, beraz, udalak, agiri batzuen artean, luzapena dala-eta Udalbatzaren eskabidearen egiaztagiria aurkeztu behar daua.

Zinegotziek horren ganean jakitun diran ezker, Udalaren Osoko Bilkurak, bertarotutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari eskatzea Bakioko hondartza hainbat ekipamendurako erabilteko, itsas eta lehorraren arteko jabari publikoa okupatzeko kontzesinoaren luzapena; izan be, kontzesinoa 2001/10/1ean esleitu zan (ERRF.: 151916/151916; C-1114).

8.- UDAL KIROLDEGIAN ANTOLATU ETA GARATZEN DIRAN KIROL JARDUERETAN IZENA EMOTEAGAITIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DAUZAN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONARTU, BETI BE GABONETAKO KIROLEKUEN PREZIOAK ONARTZEKO, HALA BEHAR BALITZ.

Bakioko Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, kiroldegiko prezio publikoak eta eurok arautzen dauzan ordenantzea onartu ebazan. Harrezkero, udalbatzak, aldarazpen bi onartu dauz, bata, 2017ko martiaren 30ean; eta, bestea, 2018ko irailaren 27an.

Hori horrela izanik, Amets Jauregizar alkate andreak adierazo dau prezio publikoak arautzen dauzan ordenantzea aldarazo beharra dagoala, beti be Gabonetako kirolekuen prezioak onartzeko, era honetara:

1 ume / 1 aste: 45€
1 ume / 2 aste: 85€
2 ume / 1 aste: 85€
2 ume / 2 aste: 150€
3 ume / 1 aste: 110€
3 ume / 2 aste: 195€

Zinegotziak espedienteen jasotzen dan aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerreko, eta informazio batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

1.- Bakioko kiroldegian antolatu eta garatutako kirol-jardueretan izena emotearren ordaindu beharreko prezio publikoen ordenantzearen aldarazpena hasikera batean onartzea, beti be gabonetako kirolekuen prezioak onartzeko.

2.- Aldarazpenaren espedientea 30 egun baliouduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Aldarazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.

9.- AZAROAREN 25A EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA DALA ETA, HERRERI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ

Ametz Jauregizar alkate andreak adierazpen-instituzionala irakurtzeari ekin deustso, horren edukia hauxe izanik:

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Biktimen erreparazioak emakumei ahotsa ematea eskatzen du

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat, berriz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazoiengatik bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimen duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egitarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzea eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan biktimizazio bikoitza gertatzen da: emakume biktimen jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun arduraren sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. BERDINSAREatik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezten eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar), erabagi hau hartu dau:

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna dala eta, horri buruz arestian irakurritako adierazpen instituzionala onartzea, eta, beraz, adierazpen horren azalpen atalean azaldutakoa gauzatzeko konpromiso honek hartzea:

- *Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezten, ahalduz feministak eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.*
- *Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarri.*
- *Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.*
- *Ekimen kolektiboak laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.*
- *Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.*
- *Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.*

- *Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.*

10.- HERRIKO ESERLEKUEI, PAPERONTZIEI ETA ARGITERIARI BURUZKO ERABAGIA HARTU.

Gai hori dala eta, Aitor Apraiz zinegotziak, hauxe azaldu dau:

Azkenengo urteetan, kexa asko jaso dira auzo, kale, pasoak eta puntu baltzetan argi gitxi dagoela eta. Ganera, 2019ko aurrekontu parte-hartzaileetan, proposamenak batzeko egin dan azken prozesuan, orain arte hainbat aldiz egin diran eskaera bardinak agertzen dira, behin eta barriro, bi edo hiru urte igaro eta gero.

Hori dala eta, honakoa proposatzen dogu: batetik, Bakioko Udalak, auzoetan edo gure pertsonalak egindako parteakaz argiteari buruz batu diran eskaera eta kexakaz, txosten bat egitea hilebeteko epean; bestetik, txosten hori oinarritzat harturik eta gero udalean azterturik, beharrezkoak diren hobekuntza lanak eta planak, ahal danik eta lasterren bideratzea.

Bestalde, hainbat paperontzi eta jesarlekuren egoera kaskarra ikusirik eta egoera hori konpontzeko edo bideratzeko hainbeste luzatutako epea kontuan harturik, honakoa proposatzen dogu: Bakioko Udalak, hilebeteko epean, egoera txarrean dagozan paperontzi eta jesarleku guztien errepasso orokor bat egitea eta konpontzea, eta beharrezkoa izan ezker, barriak ipini (ezin badira konpondu).

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

Herriko eserlekuei, paperontziei eta argiteriari buruzko gaia Informazio Batzordean lantzea.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Aitor Apraiz, EAJ-PNV taldearen izenean, galdera hau egin dau: Kiroldegiaren segurtasunari buruz Ertzaintzak txostena egin eban ezker, horrerri buruz ia ezelako barririk dagoan.

Amets Jauregizar alkate andreak erantzun deutso esanez joko eta ikuskizun publikoaren legearen arabera Eusko Jaurlaritzako kiroldegia ikuskatu ebala, eta zehaztu ebazan akatsak zuzentzeko epea emon eutsola Udalari, eta, dagoeneko, zuzenduta dagoz.

Aitor Apraiz, EAJ-PNV taldearen izenean, galdera hau egin dau: Kiroldegiako jarduna dala-eta UTE BAKIO KIROLA-k aurkeztutako erreklamazio ekonomikoari buruz Bakioko Udaltzarak, 2018.10.25ean, hartutako erabagiaren ganean ia horrek aurkeztu dauan agiririk.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso atso bertan Bilboko Administrazioagazko Auzien 5. Epaitegiko jakinarazpena jaso dala, azalduz UTE BAKIO KIROLA-k demanda aurkeztu dauala eta espedienteko agiriak bialtzeko.

Aitor Apraiz, EAJ-PNV taldearen izenean galdera hau egin dau: Gaztelugatxe ganean udaletik idatzia bialdu zan, ia horren ondoren erantzunik jaso dan.

Amets Jauregizar alkate andreak honakoa dinotso: Gaztelugatxe planaren ganean idatzia aurkeztu genduan alegazioak eta ekarpenak zehaztuz, badakigu be Bakioko alkarte batzuk be alegazioak aurkeztu dabezena, baina ondino be ez dogu erantzunik jaso.

Iker Muruaga, EAJ-PNV taldearen izenean galdera hau egin dau: udalbatzen eta udaleko beste batzarren grabazioen kalidadea hobetzeko jakin gura da batetik, STRIMGIN ipinteko proiektua egoerea zelan dagoan; bestetik, udala ia prest dagoan lizitatzeko zerbitzu hori martxan ipinteko, eta, prest balego, zerbitzua indarrean ipinteko epeak zeintzuk izango litzatekezan.

Amets Jauregizar alkate andreak honako dinotso: aurreko batean komentatu genduan modura laster hasi beharko gara udalbatzarrak eta kontratazio mahaiak Striming bidez egiten. Eusko Jaurlaritza hasi da erakunde publikoetan inplantazio hori jarten, baina, horretarako eskaera asko daukiezan ezker, itxaroten gagoz Bakioren txanda noiz izango dan.

José Luis Urrutiak zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean galdera hau egin dau: Skaepark obran akatsak dagoz, obrea inauguratu da eta jakin gura da ia konponduko diran eta enpreseari obren faktura ordaindu jakon.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso enpreseari ez jakola ordainduko obren akatsak konpondu arte.

José Luis Urrutiak zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean galdera hau egin dau: eskolako aterpeko obreak, epeari jagokonez, atzerapena daroan ezker, ia noiz aurreikusten dan amaitzea.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso, astebeteko atzerapena daukiela, enpresek aurkeztu dauan plagnetik. Udal teknikoek astero-astero obrearen jarraipena egiten dabe.

Maria Begoña Zapirain zinegotziak, EAJ-PNV taldearen izenean galdera hau egin dau: URAgaz (euskal ur agentzia) hitzarmen batzuk dagoz erreken garbitasunari buruz, eta ia horren ganean ezer barririk dagoan.

Amets Jauregizar alkate andreak dinotso bere egunean, Bakioko erreken argazkiak bialdu jakozala garbitasunaren aldetik erreken egoera URari ezagutzera emoteko; eta orain aste batzuk URaren teknikari bigaz batu gara, eta horrerri buruz berba egin zan eta planteatu batzuk mahairatu ziran, eta abendurako geratu gara barriro batzartzeko eta euren aldetik eta geure aldetik erreken garbitasuna zelan egin zehazteko proposamenak aurkezteko.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 20:10ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria